

JAIOPERRIENTZAKO KANPAINA

Laudio Udalak, bere Euskara Arloaren ekimenez, kanpaina bat jarri zuen abian aspaldi: herriko erroldan izena ematen zuten jaioberriei musika disko bat eta Alkateak hari zuzendutako gutun bat ematen zitzairen.

Kanpaina hori berriztatu da eta oraingoan Elkar etxeak umeentzat argitaratutako **TXIKIA IZANIK izeneko disko bat** oparituko zaie. Disko horretan ume txikien ikaste eta psikomotrizitate prozesuan lagungarri diren hainbat euskarazko kantu agertzen da. Diskoarekin batera, kantuen letrak biltzen dituen liburuxka bat, gurasoek baliagarri izan dezaten. Edozein modutan beherago dituzu.

El Ayto de Llodio, por iniciativa de su Área de Euskera, tiene en marcha desde hace ya algún tiempo, una campaña consistente en regalar **un disco** con música infantil y una carta del Alcalde, a todos aquellos recién nacidos que se inscriban en el padrón municipal.

Dicha campaña se ha renovado y, en la actualidad, se regala un disco de nombre *Txikia izanik*, 'siendo pequeño'. En él se recogen varias canciones en euskera válidas la optimización del aprendizaje y de la psicomotricidad. Junto al disco, un librito con la letras de las canciones, para que puedan ser usadas por los padres y madres. En cualquier caso, las puedes localizar más abajo.



Harekin batera **Alkatearen gutun bat**, umearen bitartez gurasoei zuzendua eta euskararen balioaz eta beharraz aritzen dena. Hori ere, beherago duzu.

Y como complemento **una carta del Alcalde**, dirigida a los progenitores por medio del bebé, y en la que se da cuenta del valor y de la necesidad del euskera. También puedes leerla más abajo.

TXIKIA IZANIK DISKOKO KANTUEN LETRAK

1. TXIKI, TXIKI, TXIKIA

Txiki, txiki, txikia
ikusten naiz kalean.
Handitzen, handitzen
hasi naiz handitzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.
Bi begi ikusteko
bi belarri entzuteko.
Handitzen, handitzen...
Ahoa gozatzeko
sudurra usaintzeko
Handitzen, handitzen...
Eskuak ukitzeko
bi oinak ibiltzeko
Handitzen, handitzen...
Burua pentsatzeko
bihotza maitatzeko
Handitzen, handitzen...

(I. URBIETA - XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

2. LOTAN NAGO

Lotan nago, begiak itxita
Lotan nago, begiak itxita
Ring eta ring, ezin lorik egin!
Ring eta ring, ezin lorik egin!

Esnatu naiz, pijama jantzita
Esnatu naiz, pijama jantzita
Ring eta ring, ezin lorik egin!
Ring eta ring, ezin lorik egin!

Zarata asko, banoa korrika
Zarata asko, banoa korrika
Ring eta ring, ezin lorik egin!
Ring eta ring, ezin lorik egin!

(I. URBIETA - HAU HUMOREA ELKAR, 1993)

3. SAGU TXIKI

Sagu txiki, sagu maite,
zulotxoan gorde zaitez,
Zapik ikusten bazaitu
kris-kras jan egingo zaitu.
Ez nau jango!
Jango zaitu!

(HERRIKOIA - URTXINTXA ABESTIAK ELKAR, 1999)

4. PINTTO PINTTO

Pintto Pintto gure zakurra da-eta,
Pintto Pintto bere izena du.

Txuri-beltza da-eta
ez du koska egiten.
Begi bat ixten du
jolastu nahi badu.

Pintto Pintto...

Belarriak luze
isatsa jostakin.
Kalera irteteko
beti presarekin.

(HERRIKOIA - GURE ABESTIAK IZ, 2003)

5. JON BRAUN

Jon Braun indio txiki bat zen
Jon Braun indio txiki bat zen
Jon Braun indio txiki bat zen
indio txiki bat zen, Jon.

Txiki bat, txiki bi, hiru indio txiki
lau txiki, bost txiki, sei indio txiki
zazpi txiki, zortzi txiki, bederatzi indio txiki,
hamar indio txiki.

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

6. KUA-KUA

Kua, kua! kua, kua!
Poliki, poliki doa,
Kua, kua! kua, kua!
Poliki ahatetxo

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

Laudio  Euskara
Udala Arloa

7. LEHENENGOTXO HORI

Lehenengotxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
lodia da hori.

Bigarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
bizkorra da hori.

Hirugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
luzea da hori.

Laugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
alferra da hori.

Bosgarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
txikia da hori.

Lalara, lalara...

(HERRIKOIA- ALTZA PELIPE! ELKAR, 2004)

8. APALATXO

Apalatxo, apalatxo
zein ederki, zein ederki.

Apalatxo, apalatxo
jolasten goizetik.

Eskuak? Gerritik!

Orain hanka puntatik
gero belaun gainetik
lurra joaz azkenik!

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

Laudio  Euskara
Udala Arloa

9. ERAGIOZU

Eragiozu eskutxoari
eskutxo txiki polita horri.

Eragiozu burutxoari,
burutxo txiki polita horri.

Eragiozu hankatxoari,
hanka txiki polita horri.

(HERRIKOIAK- HAUR JOLASEN ABESTIAK 1 HIK HASI, 2002)

10. HAN ZEUDEN

Han zeuden krokodilo eta tximua
arratoi txiki eta ardi zuria,

katu, oilo, elefante
ez zen ezer falta!

ez dakit ondo esan dudana...

Goazen berriro hastera!

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

11. ARANTXAN TXAN

Arantxantxan, arantxantxan,
guli, guli, guli, guli
guli, Arantxan txan.
Arabi, arabi,
guli, guli, guli, guli
guli, Arantxan txan.

(HERRIKOIAK- HAU UMOREA - ELKAR, 1999)

Laudio  Euskara
Udala Arloa

12. ENE TXIKI

Ene txiki ene polit
ene maite zaitut,
Zatoz zaldi gainean
eramango zaitut.
Binbilin, bonbolon,
binbilin bolon boloña,
binbilin bonbolon,
binbilin bolon boloña.
Nire maitea, nik zuretzat,
opil sorta bat daukat.
Erdi-erdia emango dizut,
beste erdia niretzat.

(HERRIKOIA- ALTZA PELIPE! ELKAR, 2004)

13. KORRO KORROAN

Korro, korro, korroan
Jolasean eta kantuan
orain dira bai kontuak
Hanka puntaz kolpatuak
bat, bi, hiru
behatz puntaz ikutuaz
bat, bi, hiru.

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

14. TXALOPIN TXALO

Txalopin-txalo,
txalo eta txalo,
katutxoa mizpira
gainean dago.
Badago, bego
bego, badago!
Zapatatxo berriari
begira dago.

(HERRIKOIA- DOKTOR DO RE MI ELKAR, 2005)

15. BINBILI BONBOLO (GURE MOTIKO POTOKA)

Bili-bili eta bonbolo
senda lo?
Akerra Frantzian balego
astoak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo
binbili bonbolo
senda lo?
Akerra Frantzian balego
astoak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo

(HERRIKOIA- HAUR KANTARIEN BIRLORAK , 1989)

16. MARTUTENeko TRENA

U! U! U! U! U!
U! U! U! U! U!
Triki-traka triki-traka
Martuteneko tren
triki-traka, trika-traka
zubitik barrena.
Aurretikan dabilena
aurrera dihoala
azkena datorkiguna
gelditu dadila.

(I. URBIETA- XIXUPIKA 1 XOXOA, 1981)

ALKATEAREN GUTUNA (Euskaraz)

Laudioar jaio berriari

Laudioar berri eta laztan hori:

Poztekoa da gu guztiontzat, zu bezalako audioar berri bat gure herrian izatea. Nola bestela!

Baina, bestetik, alaitasun giro honen barruan, nolabaiteko beldurra piztu zait barne gogoetan. Zergatik? Kalkuluak eginik, zuri maitekiro idazten dizudan gutun hau, heldutasunez irakurtzen duzunerako ni nahikotxo zaharkituta izango naizelako. Eta, ziur asko, beste pertsona bat egongo da udal honen buruan. Kargu benetan pozgarria, honen bezalako kasuotan.

Historiak sortzen duen etengabeko ordezkapen horretan pentsatzen nengoela, laguntza eske zuregana jo behar nuela otu zitzaidan. Laguntza, bai, zu eta zure belaunaldikoon eskuetan egongo direlako Audio gure herriaren etorkizun eta nortasuna. Gai honetaz asko dakitenek diotenaren arabera, milaka urtetan eta duela mende eskasera arte gure herriko bizilagunek euskaraz egiten zuten. Europak bizirik duen hizkuntzarik zaharrenez hain zuzen ere; eta hori, nire uste apalean behintzat, harro egotekoa da. Edo, beste modu batean esanda: zorte handia izan da hemen jaiotzea.

Baina mugarik gabeko mundu honetan aldaketak bata bestearen atzetik datoz eta geroz eta eragingarriagoak dira. Horregatik, gurea bezalako kultura xumeak desagertzeko arriskuan daude.

Hau esanda, hobeto ulertuko duzu egiten dizudan oparia: sehaska-kantak dituen disko bat. Eta, gainera, euskarazkoak, gure herriaren jatorrizko hizkuntza eta bere etorkizuna zure esku geratzen dena. Honela, espero dut ezitsuagoak izatea hizkuntzarekiko zure lehenengo harremana eta lokartze gozoak.

Egun batez, agian, gogoratuko zara gurekin eta hizkuntza bat baino gehiago jakin zenezan eta Audio euskaldun berri bat goza zenezan ahalegindu ginenekin. Beti esker onean izango duzun zerbait.

Eta, ziur aski konturatuko zinen, euskaraz bizi izanez, gure larreak berdeagoak direla, ihintza ezin distiratsuagoa agertzen zaigula eta,

horregatik, udagoienean jausitako orbelak ohikoak baino gorrixkagoak direla. Gezurra dirudien arren, magikoa delako.

Hona hemen euskara maitatua gordetzen duen kutxa... Oraintxe eman nahi dizugu, ireki eta barruan dagoen altxor miresgarri eta liluragarriaz goza dezazun. Zenbat diren emango dizkizun une onak! Eta nolako ekarpen pozgarriak eragingo dituen zure bizitzan!

Hala ere, betekizun bi eskatu behar dizkizut kuxtaren giltza eskuratzearen trukean: batetik, ahal duzun neurrian, bana ditzazun bere oparotasunak eta, bestetik, gainean har dezazun ondorengo belaunaldietara igortzearen ardura, guk gaur zurekin egiten ari garen bezalatsu. Haiek ere geroagokoetara eman ahal diezaieten eta, honela, etengabeki...

Guzti honengatik, eta audioarron izenean oparitxo hau ematen badizut ere, ez didazu eskerrik eman behar. Geu gara zuri eman behar dizkizugunak, zu gure etorkizuna, gure itzaropena zarelako eta badakigulako ez diguzula hutsik egingo.

Eskerrik asko, bada, eta muxutxo txiker goxotxo, audioar jaio berriari. Bihotzez.

Zure Alkate eta laguna,

Jon Karla Menoio (LAUDIOKO ALKATEA)

CARTA DEL ALCALDE (Castellano)

Al nuevo/a laudioarra

Estimado/a nuevo/a laudioarra:

No cabe duda de que tu llegada a nuestro municipio es una alegría y un beneficio para todos.

Pero también es algo que incluso me plantea unos miedos personales: para cuando tú tengas la edad suficiente como para entender esta carta que con tanto cariño te envío, yo seré alguien ya bastante mayor. Y existirá otra persona en el relevo de la Alcaldía, un cargo que, en casos como el presente, honra presidir.

Pensando en ese eterno cambio, el que mueve la historia y la sociedad, es por lo que me veo necesitado de acudir a ti, de pedir tu ayuda. Porque vais a ser tú y los de tu generación los que encaminéis el futuro. Dicen los que han estudiado mucho el tema que durante miles de años y hasta hace tan sólo un siglo en nuestro pueblo la gente hablaba comúnmente una lengua: el euskara. Un idioma del que podemos presumir porque, siempre según esas personas tan estudiosas, es la lengua en uso más antigua de Europa. Así que casi podríamos decir que es un privilegio el haber nacido aquí.

Pero en este mundo inmenso se están produciendo tan rápidos e importantes cambios que culturas pequeñas como la nuestra se encuentran en verdadero peligro de desaparición.

Por ello quiero hacerte este pequeño obsequio: un disco con canciones de cuna en euskera, nuestra lengua tradicional y cuyo futuro depende de ti. Así, con este detalle, esperamos facilitarte y hacer más agradables tanto tu primer contacto con nuestra lengua como tus dulces sueños.

Quizá, algún día te acuerdes de aquellos que luchamos para que conocieses más de una lengua, para que disfrutases de nuevo de un Laudio euskaldun.

Y te habrás fijado ya en cómo, viviendo en euskera, nuestras campos parecen más verdes, el rocío es más brillante y hace que las hojas caídas en el otoño sean de un ocre rojizo mucho más llamativo. Porque, aunque te parezca mentira, es mágico.

Aquí tienes el precioso cofre del euskara... Te lo entregamos para que lo abras y puedas disfrutar de este brillante y esplendoroso tesoro. ¡Verás cuantas satisfacciones te va a dar! ¡Y en qué medida va a enriquecer tu vida!

Sólo te pido un par de condiciones a cambio de entregarte la llave del cofre: que compartas todo lo que puedas sus riquezas y que, al igual que nosotros/as hacemos hoy contigo, te encargues de transmitirlo a las próximas generaciones para que ellos hagan lo mismo con las siguientes y así sucesivamente.

Por todo ello, a pesar de que soy yo quien en nombre de todos los laudioarras te entrego este pequeño regalo, no debes darme las gracias. Somos nosotros los que te las damos a ti porque sabemos que eres nuestro futuro, nuestra esperanza y que no nos vas a defraudar.

Eskerrik asko, y recibe un cariñoso beso, nuevo/a laudioarra. Con todo nuestro corazón.

Tu Alcalde y amigo,

Jon Karla Menoio (LAUDIOKO ALKATEA)